

KONTROL MOZIOA

DONOSTIAKO ELKARBIZITZARAKO PLANA DELA ETA

Naiara Sampedro Perez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2018ko martxoan Pertsonentzako Zerbitzu Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2016ko ekainean, Kultur Aniztasuneko zinegotzi ordezkariak Udalbatza osatzen dugun taldeoi jakinarazi zigun, sei hilabeteko epean, Udaleko Kultur Aniztasun Bulegotik lantzen ari ziren Elkarbizitzarako Planaren zirriborroa aurkeztuko zuela eta ekarpenak egiteko aukera zabalduko zitzaigula.

2017ko ekaineko Pertsonen Zerbitzuen Batzordean, hiriko Kultur Aniztasun politiken kudeaketak bizi duen moteltasunaz kezkatutik, gaiaren inguruko interpelazioa aurkeztu genuen. Batzorde hartan, Elkarbizitzarako Plana nahi baino motelago lantzen ari zela adierazi zitzaigun.

2018ko maiatzean gaude eta Donostiako Elkarbizitzarako Plana aurkeztuko zitzaigula adierazi eta bi urte pasatu direla, ez dugu ezer oraindik ere.

Honegatik guztiarengatik, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari irailerako parteka dezala Udalbatza osatzen dugun taldeekin Kultur Aniztasun bulegotik lantzen ari den Donostiako Elkarbizitzarako Plana.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari parteka ditzala Udalbatza osatzen dugun taldeekin arrazakeriaren kontra eta elkarren ezagutza eta aitortzarako Udaletik antolatzen diren ekimenak eta sustatu ditzala dinamikak non, modu parte hartzailean, udal taldeok eta hiriko eragileek zein norbanakoek Donostiako kultur aniztasuna ezagutu eta aitortuko dugun eta elkarbizitzaren sustatzaile izango garen.

Donostian, 2018ko maiatzaren 18an

Naiara Sampedro Perez
EH Bildu udal taldeko zinegotzia